



GOBERNU BATZARRA

2025.02.11

Alkatea:

Angel Martinez de Rituerto Arregi

Bertaratutako zinegotziak:

Kristina Pelaez Errazkin

Ander Figuerido Zubiria

Aitor Agirresarobe Murgi

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko otsailaren hamaikan, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

Ez dira bertaratu:

Estitxu Kortejarena Ugarte

Goiuri Ezeiza Arandia

Idazkari akzidentala:

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Kontu-hartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

1. Akta hau onartzea: 2025eko urtarrilaren 28koa.
2. Onartzea Tolosako Udaleko brigadako lan taldearen 2025 urteko egutegia aldatzea.
3. Onartzea berdintasuna sailerako praktiketako hitzarmena sinatzea.
4. Dekretu honen berri ematea: Tolosako Udaleko sail ezberdinek dituzten komunikazio behar estrukturaleri erantzuteko zerbitzu kontratuaren luzapenerako eskumenak abokatzea.
5. Dekretu hauen berri ematea:
2025/138 Dekretua eta 2025/221 dekretu zuzentzailea: 2024/63 faktura zerrendak.
2024/2594 Dekretua: 2024/67 faktura zerrendak.
2025/222 Dekretua: 2024/68 faktura zerrendak.
2025/220 Dekretua: 2024/69 faktura zerrendak.
2025/255 Dekretua: 2024/70 faktura zerrendak.
2025/294 Dekretua: 2024/71 faktura zerrendak.



1. AKTA HAU ONARTZEA: 2025EKO URTARRILAREN 28KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO BRIGADAKO LAN TALDEAREN 2025 URTEKO EGUTEGIA ALDATZEA.

AURREKARIAK

Lehena.- 2024ko abenduaren 17an Tokiko Gobernu Batzarrak 2025 urterako egutegiak (udaltzaingokoa ez ezik) onartu zituen barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioarekin batera.

Bigarrena.- Akordio honetan, besteen artean, 2025 urterako brigadako egutegia onartu zen eta bertan, 2025eko urtarrilaren 20tik apirilaren 7ra bitartean, 6,30 orduko lanaldia aurreikusten zen eta gainontzeko egunetan, lanaldi malguko orduak kontuan hartu gabe, 7 ordutako lanaldia egitea onartu zen.

Hirugarrena.- Modu honetan onartutako egutegiarekin brigadako langileak ez dira ados agertu eta beste hainbat proposamenen artean, egunero urte osoan zehar, lanaldi malguari dagozkion orduak salbu, 7,00tako lanaldia egitea proposatu dute; honek urtean egin beharreko 1592 ordutako lanaldia gaindituko luke eta horren konpentsazio gisa, soberan dituzten orduen truke jai egun batzuk egingo lituzkete langile bakoitzak.

Behin gaia aztertu ondoren hauxe da egiten den

TXOSTENA

Lehena.- Udal hitzarmenaren 17 artikulua, lan egutegiaz hitz egiten duenean, lan ordutegiaren banaketa langileen ordezkariarekin negoziatu eta lotuko dela adierazten du, beti ere zerbitzuaren beharra bermatuta egon behar duelarik.

Bigarrena.- Negoziazioa ordezkari sindikalekin



Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikulua m) atalean xedaturikoaren arabera, lan egutegiak, lanaldiak, ordutegiak, oporrak eta baimenak, besteen artean, pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira. Zentzu horretan, lan egutegiaren aldaketa hau ordezkari sindikalekin, 2025eko otsailaren 4an negoziatu zen eta bi aldeen arteko adostasunez onartu zen.

Hirugarrena.- Behin egutegi proposamen berria aztertu ondoren, brigadako lan taldeak eta ordezkari sindikalak egindako proposamenaren arabera, 1.531,50 ordu urteko eguneroko lanaldiaren barnean sartuko lirateke eta 80 ordu lanaldi malguaren barnean; honek esanahi du urteko egutegian 19,50 ordu soberan edukiko dituztela eta horren ondorioz, langile bakoitzak ia hiru jai egun gehiago egin beharko ditu egutegia koadratu ahal izateko udal hitzarmenaren xedatutako orduetara.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

Lehena.- Tolosako udaleko 2025 urteko Brigadako lan taldearen egutegia aldatzea, ebazpen honen eranskin gisa doan egutegia onartuz. 2025 urteko egutegia modu honetan geratuko litzateke:

- Urteko lanaldia 1.611,50 ordu
- Lanaldi malgua: 80 ordu (1.611,50 ordu horien barnean)
- Orduak soberan: 19,50 ordu (otsailaren 12tik apirilaren 7ra bitarteko lanaldiaren gehikuntzaren ondorioz).

Bigarrena.- Erabaki hau langileen ordezkarietara jakinaraztea



3. ONARTZEA BERDINTASUNA SAILERAKO PRAKTIKETAKO HITZARMENA SINATZEA.

IKUSIRIK

LEHENA.- Giza Baliabideetako arduradunak txosten teknikoa luzatu du, honakoa adieraziz:

Barakaldoko Lanbide Heziketa Institutuak, bertako ikasle batek (berdintasun alorrean) Tolosako udalean praktikak egiteko proposamena luzatu du. Horretarako, Lankidetz hitzarmen bat sinatzeko proposamena egin du. Praktikaldiaren ezaugarriak hauek dira:

- Praktikaldia berdintasun sailean egingo ditu.
- Praktikaldiaren epea 2025eko otsailaren 24tik 2025eko maiatzaren 23 arte izango da.
- Ikaslearen tutorea Agurtzane Zubero Agirregomezkorta izango da.
- Ikastetxeak proposatutako ikaslea Cristina Otegui Albisu da.

KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. s) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza. Bestaldetik, Tolosako Alkatezak, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 dekretuaren bitartez, lankidetz hitzarmenak onartzeko ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea erabaki zuen. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna.**

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Barakaldoko Lanbide Heziketa Institutuak eta Tolosako udalak, udalean praktikak egiteko Lankidetz hitzarmena sinatzea, honako klausulen arabera:



KLAUSULAK

- 1.-Ikasleek ez dute lan-loturarik edo –erlaziorik izango Lantokiko Prestakuntza-modulua edo erregimen orokorreko enpresa edo erakunde parekatuan prestakuntza duala garatzen duten enpresarekin.
- 2.- Ikasleak ez du eskubiderik enpresaren aldetik Lantokiko Prestakuntza-modulua edo erregimen orokorreko enpresa edo erakunde parekatuan prestakuntza duala garatzearen truke ordain-sari bezala diru-kantitate jakin bat jasotzeko.
- 3.-Enpresaren ardura izango da ikasle guztiekin laneko segurtasun- eta higiene-esparruko legeria aplikatzea eta betetzen dela ziurtatzea.
- 4.-Lantokian bertan edo lantokirako bidean gertatu ahal den edonolako istripuren aurrean Eskola Aseguruak adierazitakoaren arabera edo Euskal Administrazioak harpidetutako aseguru osagarriaren arabera jokatu da.
- 5.-Ikasleen prestakuntza behar den bezala koordinatu eta garatzeko enpresak behar den bezala prestatutako instruktore egokia edo egokiak izendatuko ditu.
- 6.-Prestakuntza-planari dagokionez, eta dagokion Heziketa Zikloaren edo espezializazio kurtsoaren curriculumean definitu denaren arabera, zentroko tutoreak eta enpresako instruktoreak landuko dute batera.
- 7.-Honako hitzarmen hau 2024/2025 ikasturte osoan egongo da indarrean eta automatikoki luzatuko da, beti ere aldeetako batek kontrakoa adierazten ez badu.
- 8- Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren berrogeita hamabigarren xedapen gehigarriak – 52. – ezartzen duenez, prestakuntza-programetan sartutako prestakuntza-praktikak edo kanpoko praktika akademikoak egiten dituzten ikasleak Gizarte Segurantzaren sisteman sartuko dira, unibertsitateko eta lanbide-heziketako ikasleek egindakoak barne.

Hezkuntza Sailak, eta, zehazki, Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak hartuko ditu bere gain Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, hau da, alden eta bajen prozeduraren kudeaketa, bai eta enpresako prestakuntzaren kotizazioaren eta Dual Orokorraren kostua ere.

BIGARRENA.- . Praktikaldiaren ezaugarriak hauek izango dira:

- Praktikak berdintasun sailean egingo ditu.
- Praktikaldiaren epea 2025eko otsailaren 24tik 2025ko maiatzaren 23 arte izango da.
- Ikaslearen tutorea Agurtza Zuberu Agirregomezkorta izango da.
- Lanbide Heziketa Institutuak proposatutako ikaslea Cristina Otegui Albisu da.

HIRUGARRENA- Akordioa Barakaldoko Lanbide Heziketa Institutuari jakinaraztea.



4. **DEKRETU HONEN BERRI EMATEA:**

2025/271 Dekretua: Tolosako Udaleko sail ezberdinek dituzten komunikazio behar estrukturaleri erantzuteko zerbitzu kontratuaren luzapenerako eskumenak abokatzea.

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI jaunak, Tolosako Udaleko alkate-udalburuak emana. Horretarako behar dituen ahalmenak ematen dizkio Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoak.

IKUSIRIK

LEHENA.- 2023ko uztailaren 3ko 1707/2023 alkatetzaren dekretuaren bidez, alkate-lehendakariak erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarraren esku uztea kontratazioaren arloko hainbat eskumen, zehazki 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia dutenak.

BIGARRENA.- Hori horrela, Gobernu Batzarrak, 2022ko urriaren 18an, besteak beste, erabaki zuen onartzea Tolosako Udaleko sailek dituzten komunikazio behar estrukturaleri erantzuteko zerbitzu-kontratuaren espedientea, presakotzat jotzea eta lizitazioari hasiera ematea.

HIRUGARRENA.- Behin kontratazio-jardunbide osoa legearen arabera egin ondoren, Gobernu Batzarrak 2023ko urtarrilaren 3an, besteak beste, erabaki zuen: ADAKI DISEINUA ETA PUBLIZITATEA, S.L. (B20828729) enpresari adjudikatzea kontratuaren 1. lotea (Sailek egunerokotasunean dituzten komunikazio aholkularitza beharrei erantzuteko eta idatzizko edukiak prestatzeko zerbitzua) eta JON GAZTAÑAGA MALUMBRES (xxx578xxX) jn.ri adjudikatzea kontratuaren 2. lotea (Udal sail ezberdinek dituzten diseinu grafikoko elementu beharrei erantzuteko zerbitzua).

LAUGARRENA.- Bi loteei zegozkien kontratuak 2023ko otsailaren 1ean sinatu ziren bi urteko iraupenarekin (beste urtebete luzatzeko aukerarekin). Beraz, muga eguna 2025eko urtarrilaren 31 izango da. Baina Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra 2025eko otsailaren 4a baino lehen bilduko ez denez, alkate-lehendakari honek



E B A Z T E N D U

LEHENA.- Beregan abokatzea 2023ko uztailaren 3ko 1707/2023 alkatetzaren dekretuaren bidez Tokiko Gobernu Batzarraren eskuordetutako eskumenak, Tolosako Udaleko sail ezberdinek dituzten komunikazio behar estrukturaleri erantzuteko zerbitzu kontratuaren espedientean (2022SABI0008 espedientea) dagokion luzapena egiteko.

BIGARRENA.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta ebazpenaren berri ematea Udalak egiten duen lehenbiziko Tokiko Gobernu Batzordean.

HIRUGARRENA.- Dekretua bete bedi eta legearen arabera jakinaraz bekio Idazkaritza Orokor, Administrazioaren Modernizazio, Kontratazio eta Ondare Azpisailari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.



Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidentala naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARI AKZIDENTALA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

5. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2025/138 Dekretua: 2025/221 dekretu zuzentzailea: 2024/63 faktura zerrendak

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailletza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

63. zenbaki duena, 549.488,93 eurokoa.



Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

62. zenbaki duena, 549.488,93 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguria Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailtza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

IKUSIRIK

LEHENA.- Zinegotzi delegatuaren 2025/138 Dekretuaren bidez honako hau onartu zela:

- Gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda onartzea: 63 zenbaki duena

BIGARRENA.- Akats bat antzeman dela ebazpeneko apartatuan:

Honela dio:

“Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

62. zenbaki duena, 549.488,93 eurokoa-“

Eta honela behar du:

“Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

63. zenbaki duena, 549.488,93 eurokoa”



KONTUAN HARTURIK

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 109. artikuluan honako hau ezartzen duela: «...2. Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako ebazpena ematea: zinegotzi delegatua.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

EBAZTEN DU

LEHENA.- Zuzentzea zinegotzi delegatuaren 2025eko urtarrilaren 17ko 2025/138 Dekretuaren ebazpena, era honetan:

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

63. zenbaki duena, 549.488,93 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek



ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

63. zenbaki duena, 549.488,93 eurokoa.

BIGARRENA.- Ebazpen hau onartzea, zuzenketa egin eta gero.

HIRUGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



2024/2594 Dekretua: 2024/67 faktura zerrendak.

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

LEHENA.- NURA GIZARTE ELKARTEAK, G20779187, faktura hauek aurkeztu dizkio Tolosako Udalari:

- 2024-FAKT-004209-00: 2024/09/06 data eta 040/2024 faktura zenbakiarekin
- 2024-FAKT-004679-00: 2024/10/03 data eta 045/2024 faktura zenbakiarekin
- 2024-FAKT-005287-00: 2024/11/05 data eta 054/2024 faktura zenbakiarekin

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Tolosako Udalak 2022ko abuztuaren 1eko datarekin esleitu zion <<Arlo sozioedukati boan eta psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua>> Nura Gizarte Elkarteari. Honen bidez, Tolosako Udalaren Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailak egituratutako zerbitzu integrala gauzatzeko oinarria ezarri zen, gizarte esku-hartzeko arloan Tolosako Udalaren eskumeneko arreta zerbitzua modu eraginkorrean kudeatzeko.

Esleipeneko prozesu horretan aurreikusia zegoen kontratu horren iraupena bi urtekoa izatea, eta, gainera, bi luzapen proposatzen zituen, guztira hiru urteko iraupenarekin. Beraz, zerbitzu kontratu hori 2022ko abuztuaren 1ean jarri zen indarrean, eta 2024ko uztailaren 31ra arte.

BIGARRENA.- Kontratu hori 2024ko uztailaren 31ean iraungi zen, kontratuaren luzapenik erabaki gabe.

HIRUGARRENA.- 2024ko abuztuaren 19ko 2024/1896 alkate dekretu bidez erabaki zen Erreferentzian aipatutako kontratuaren kontratazio espediente onartzea, presakotzat jotzea eta lizitazioari hasiera ematea.

LAUGARRENA: 2024ko maiatzaren 31n, Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko arduradunak txostena egin zuen gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua kudeatzeko kontratu publikoa esleitzeko prozedura berria abiarazteko proposamenarekin, zeinak premiazko izaera behar zuela adierazi zuen zerbitzu hori funtsezkoa zela ulertuta.



Hain zuzen ere, zerbitzua mantentzea ezinbestekoa dela adierazten du, zerbitzu hori eteteak izugarriko kaltea eragingo dielako abian dauden esku-hartze prozesuei, eta ondorioz, zaugarritasun egoeran dauden hainbat haur, nerabe eta familia.

Azpimarratu behar da Tolosako Udalak zerbitzu honen bidez artatzen duela haurren eta nerabeen babes-gabezia egoeren arloan udalaren eskumenekoa den esku-hartzeko zeregina. Orobat, Udal gizarte zerbitzuetan haurren eta nerabeen arrisku egoerak atzemandakoan, egoera horien balorazio zehatza egiteko gaitasuna duen, eta beharrezko esku-hartzea garatzen duen zerbitzua da; Zerbitzu horren bidez bermatzen du Tolosako Udalak haurren eta nerabeen babesa bermatzeko oinarriko baldintzak ematen direla, eta ematen ez direnean, beharrezko prozedura bideratuko dela babes neurri espezializatuak aktibatzeko.

Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailak duen egiturarekin eta baliabide pertsonalekin ez du ahalmenik zerbitzu hori emateko, esku-hartze hori kudeatzeko arloan ezagutza espezifikoa eta lan esperientzia beharrezkoak direlako, alde batetik, eta baliabide pertsonal gehiago beharko liratekeelako bestetik.

Ondorioz, zerbitzu-kontratu berria esleitu bitartean zerbitzua eteten bada, Tolosako Udalak ezin izango du bermatu arrisku egoera arin eta ertainean dauden haur eta nerabeen babesa eta ongizatea sustatzeko esku-hartzea, eta babesgabezia egoerak asko larritzeko haur eta nerabe horiek zaugarritasun egoera larrira eramateko arrisku egoera sortuko litzatekeela aurreikusten da.

BOSGARRENA.- 2024ko abuztuaren 1eko datarekin probidentzia eman zuen Jarduneko alkate-udalburuak, Ander Figuerido Zubiria jaunak, ondokoa xedatuz:

<<Lehena.- Dagokion administrazio-espeditentia hastea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoarekin bat etorriz, Tolosako udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzuaren kontratua lizitazioa martxan jartzeko.

Bigarrena.- NURA GIZARTE ELKARTEAri (G20779187) eskatzea 2024ko uztailaren 31ra arte zerbitzua eman duen baldintza berberetan ematen jarraitzeko, hasi dudana lizitazioaren ondoriozko kontratua esleitu eta formalizatu arte.>>

SEIGARRENA.- 2024ko abuztuaren 1eko datarekin abiarazi zen 2024SABI0006 espeditentia, Tolosako Udalak gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzuaren kontratua esleitzeko prozedura irekia.

2024ko abuztuaren 19ko 2024/1806 ALKATE DEKRETUarekin onartu zen, Tolosako udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratua esleitzeko espeditentari hasiera ematea.



2024ko irailaren 17an bildu zen kontratazio-mahaia eta ireki zen jasotako bi eskaintzei zegokien A gutunazala.

Hautagaitza batek beharrezko baldintza guztiak ongi bete zituen:

-NURA GIZARTE ELKARTEA (G20779187)

Dokumentazioa osatzeko errekerimendua egin zitzaion hautagaitza aurkeztutako beste entitateari:

-EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS S.A. (A79022299)

2024ko urriaren 1ean bildu zen berriz kontratazio-mahaia, eta ireki ziren B gutunazalak. Jasotako bi eskaintzetako memoria teknikoak izenpetu gabe zeudenez, baldintzatutako onarpena eman zen. Bi lizitatuzaileek epe barruan aurkeztu zuten dokumentua zuzenduta. Beraz, balorazio txostena eskatu zen.

2024ko urriaren 29an bildu zen kontratazio mahaia, eta memoria teknikoen balorazioa onartu ondoren ireki zen C gutunazala.

Lizitazio prozesuan jarraitzen duen lizitatuzaileak beharrezko dokumentazioa aurkezteko epealdia **amaitu ondoren, kontratazio-mahaia kontratua esleitzeko proposamena luzatu dio kontratazio organoari**, NURA Gizarte Elkartearen alde.

ZAZPIGARRENA.- Kontu-hartzailearen txostenak xedatzen duenez, organo kudeatzaileak prestazioak merkatuko prezioari egokitzen zaizkiola adierazten badu, ez da beharrezkoa egintza berrikusteko eskatzea, eta nahikoa izango da Alkatetzak fakturen zenbatekoari dagokion kalte-ordaina emateari buruz ebaztea.

Faktura ordaindu ezean, Administrazioa bidegabeki aberastuko litzateke.

Kontuan hartu da apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuak, tokiko sektore publikoko erakundeetako barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duenak, 28.2 artikuluan alkateari esleitzen diola bidezko ebazpena emateko eskumena.

ZORTZIGARRENA.- Jarduneko alkate-udalburuak emandako alkate probidentzian xedatutako moduan, NURA GIZARTE ELKARTEAK Tolosako Udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratua ematen jarraitu du 2024SABI0006 espedientea garatzen ari den epealdian. Jaso den informazioaren arabera, banakako eta taldekako esku-hartze planak indarrean dauden eta gauzatzen ari dira bertan aurreikusitako ekintzak eta jarduerak. Era berean, lan-talde osoak jarraitzen du bere jardunean, eta elkarte bere obligazio guztiak betetzen ari da.

BEDERATZIGARRENA.- Egiaztatu da faktura hauek egiterakoan elkarteak erabilitako irizpide ekonomikoa zerbitzu-kontratua indarrean zegoen epealdirako ezarritako berbera izan dela; hau da, zerbitzu-kontratuaren indarraldirako adostutako prezio berbera fakturatu dute hiru hilabeteetan emandako zerbitzuaren ordainketa eskatzerakoan.

HAMARGARRENA.- 2024SABI0006 espediente bidez kudeatzen ari den zerbitzu kontratua esleitu bitartean modalitate honetan eskainiko du NURA GIZARTE ELKARTEAK.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, alkate honek honako hau



E B A Z T E N D U

LEHENA.- NURA GIZARTE ELKARTEAK, G20779187, aurkeztutako hiru faktura hauek onartzea eta ordaintzea:

- 2024-FAKT-004209-00: 2024/09/06 data eta 040/2024 faktura zenbakiarekin, eta 34.717,38€ko oinarri ezargarriarekin (BEZa salbuetsita).
- 2024-FAKT-004679-00: 2024/10/03 data eta 045/2024 faktura zenbakiarekin, eta 34.717,38€ko oinarri ezargarriarekin (BEZa salbuetsita).
- 2024-FAKT-005287-00: 2024/11/05 data eta 054/2024 faktura zenbakiarekin, eta 34.717,38€ko oinarri ezargarriarekin (BEZa salbuetsita).

BIGARRENA.- Modalitate honetan emandako zerbitzuari dagozkion gainerako fakturak ere onartzea eta ordaintzea, baldin eta baldintza berak mantentzen badira fakturretan, beti ere kontratu publiko berria esleitu eta indarrean sartzen den dataren aurreko egunerarteko epealdiari badagokio.

HIRUGARRENA.- Interesatua eta Kontuhartzaitza Saila jakinaraztea

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

IDAZKARIAREN EGINBIDEA: Fiskalizazio eza.- Tolosako udalbatza osoak 2021eko uztailaren 21ean egindako bilkuran onartutakoaren arabera, kontratu txikitat hartzen



ez diren prestazioak aldez aurretik fiskalizatu behar dira, fiskalizazio mugatuaren erregimenean. Kasu honetan izapide hori ez da burutu, beraz, 424/2017 Errege Dekretuak, Tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen lege-dekretuak bere 28. artikuluan xedatzen duenak aplikagarria izango da.

Horretaz gain, 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 26. Artikuluan honako hau xedatzen du: “1. *Los Municipios deberán prestar, en todo caso, los servicios siguientes:..... c) En los Municipios con población superior a 20.000 habitantes, además: protección civil, evaluación e información de situaciones de necesidad social y la atención inmediata a personas en situación o riesgo de exclusión social,...*”

Halaber, 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki-Erakundeei buruzkoak, bere 17.1.13) artikuluan udalen eskumena xedatzen du Gizarte Zerbitzuen arloan, aplikatu beharreko legerian ezarritako xedapenen arabera.

Azkenik, eta datu gisa, Tolosako udalak funtsezko zerbitzutzat hartu zuen “herritarren sektore ahulenei arreta berezia ematea” 56/2020 Alkatetza Dekretuan, pandemia garaian.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



2025/222 Dekretua: 2024/68 faktura zerrendak

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

68. zenbaki duena, 221.195,16 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

68. zenbaki duena, 221.195,16 eurokoa.



BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



2025/220 Dekretua: 2024/69 faktura zerrendak.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailtza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

69. zenbaki duena, 71.492,08 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

69. zenbaki duena, 71.492,08 eurokoa.



BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



2025/255 Dekretua: 2024/70 faktura zerrendak.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

70. zenbaki duena, 808.696,71 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

70. zenbaki duena, 808.696,71 eurokoa.



BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



2025/294 Dekretua: 2024/71 faktura zerrendak.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

71. zenbaki duena, 43.202,95 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

71. zenbaki duena, 43.202,95 eurokoa.



BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 09:30ean.

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA



ERANSKINA

URTEA: 2025

SAILA EDO DEPARTAMENTUA :
AZPISAILA EDO ATALA:

BRIGADA
Berria

URTARRILA

Calendar grid for January (URTARRILA) with days of the week (A, A, A, O, O, L, I) and dates 1-31. Includes a red '21' at the bottom right.

OTSAILA

Calendar grid for February (OTSAILA) with days of the week (A, A, A, O, O, L, I) and dates 1-28. Includes a red '20' at the bottom right.

MARTXOA

Calendar grid for March (MARTXOA) with days of the week (A, A, A, O, O, L, I) and dates 1-31. Includes a red '21' at the bottom right.

APIRILA

Calendar grid for April (APIRILA) with days of the week (A, A, A, O, O, L, I) and dates 1-30. Includes a red '19' at the bottom right.

MAIATZA

Calendar grid for May (MAIATZA) with days of the week (A, A, A, O, O, L, I) and dates 1-31. Includes a red '20' at the bottom right.

EKAINA

Calendar grid for June (EKAINA) with days of the week (A, A, A, O, O, L, I) and dates 1-30. Includes a red '20' at the bottom right.

UZTAILA

Calendar grid for July (UZTAILA) with days of the week (A, A, A, O, O, L, I) and dates 1-31. Includes a red '21' at the bottom right.

ABUZTUA

Calendar grid for August (ABUZTUA) with days of the week (A, A, A, O, O, L, I) and dates 1-31. Includes a red '19' at the bottom right.

IRAILA

Calendar grid for September (IRAILA) with days of the week (A, A, A, O, O, L, I) and dates 1-30. Includes a red '22' at the bottom right.

URRIA

Calendar grid for October (URRIA) with days of the week (A, A, A, O, O, L, I) and dates 1-31. Includes a red '23' at the bottom right.

AZAROA

Calendar grid for November (AZAROA) with days of the week (A, A, A, O, O, L, I) and dates 1-30. Includes a red '20' at the bottom right.

ABENDUA

Calendar grid for December (ABENDUA) with days of the week (A, A, A, O, O, L, I) and dates 1-31. Includes a red '18' at the bottom right.

ORDUTEGIA:

Table for ORDUTEGIA with columns: tik - tara / tik - tara, Lan orduak lan tokian, Otartekoea, Ordain orduak, Eguneko orduak guztira, Astegunak, Noiztik noiz arte.

OHARRAK:

Table for OHARRAK with rows: Jaiegunak, 6:30 ORDU, ZUBIAK, GABON EGUNA ETA URTE ZAHAR EGUNA, OPORRAK 24 EGUN.

1531,50 ordu + 80 ordu azoketan = 1611,50 ordu
1611,50-1592= 19,50 ordu



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025IGBA0004-2025/02/11ko akta/2025/02/11ko akta ()